ASTEKARIA - 2010eko urtarrilaren 15ean - XIII. urtea - Usurbil, 392. zenbakia

# Noaua!!

www.noaua.com



Gabonak, iruditan



## Joan Mari Torrealdai

### "Errugabe garela aldarrikatuz jarraituko dugu"


www.behetik.com
Eskailerak igotzea...
ez da oztopo!
-plataformak -igogailu bereziak - aulki bereziak...
behetik
Añorga-txiki 14, tel: 943 368 781 eta 671 073 888


-%30
MAHUKA
arropa denda
etxebeste 3 943 361 106


Urtinea Lorategia
Frutarbolak
aldatzeko sasoia
Aukera zabala:
* Bertako sagar barietateak
* Udareondoak, gereziondoak, aranondoak, intxaurrondoak, pikondoak,kakiak, kiwiak...
* Fruitu txikidun zuhaixkak: mugurdiak, anderemahatsak, feijoak...
San Esteban auzoa
943 362 255 Faxa: 943 366 054
E-mail: urtinea@euskalnet.net

## Albistea iruditan !!

# Produktu ekologikoen lehen otarrak banatu dira

Produktu ekologikoz betetako lehen otarrak ailegatu ziren pasa den urtarrilaren 11n Alkartasuna kooperatibara. Herrian produktuon inguruan sortu den herritar taldeak bultzatutako ekimen honetan aldez aurretik izena emana zuten herritarrek, gustura hartu zituzten gai kimikorik gabe ekoitzitako garaiko barazkiak. Aurrerantzean, astelehenero kooperatiban bertan jasoko dituzte eskatutako barazkiak. Barazki banaketa egin ondoren, Artzabalen bildu zen produktu ekologikoak bultzatzeko osatu den taldea. Oraingoz, hilabeteko lehen astelehenetan biltzen jarraitzeko asmoa dute.



AURRERANTZEAN, ASTELEHENERO, ESKATUTAKO BARAZKIAK JASOKO DITUZTE KOOPERATIBAN.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

## Aurkibidea

UDALBATZAREN AZKEN ERABAKIAK ______ 5. OR.
TORREALDAIREKIN SOLASEAN ______ 6. OR.
GABONAK IRUDITAN ______ 9. OR.
BURUNTZAZPI TXIRRINDULARI ESKOLA ______ 15. OR.

Usurbilgo Udala

AIRE, AIRE !!! EUSKARAN

Euskal presoak
Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

BORDATXO
edaritegia
PINTXO BEREZIAK
Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

ALIPROX
Kale Nagusia 10
943 361 182
USURBIL

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE
Obaba kalea 29 · ASTEASU
943 69 68 52 · 620 800 186



UNAI AGIRRE

# Atseden hartu…. lanean hasteko!

Bukatu dira gabonetako oporrak, gabonetako egunak. Baina negu giroa eta elurteak txanda hartu diote. Komunikabideek sinetsi arazi digute inoizko elurterik handiena izan dela, inoiz baino izotz labainkorragoa egin duela, inoiz baino hotz handiagoa egin duela. Neguan gure zelaiak zuritzea ohikoa izango ez balitz bezala. Egunero bezala autoa hartu nahi izan dugu, gatz gehiago nahi dugu errepideetan. Jarrai dezagun gure bizimoduarekin, ez gaitezen eguraldira moldatu, geurera molda dezagun eguraldia! Hau da eta bizimodu modernoa!

Ezin denean, ezin da. Eta onartu behar. Hala gertatu zait niri ere, arazo pertsonalak medio, neure muga ukitu dudala. Eta atsedena hartu behar izan dut errausketaren kontrako borrokan. Ez behin betiko ordea, lan asko baitugu, eta mugimenduak lanean jarraitzen du. Berriz esnatu behar dugu eta gainera denbora tarte laburrean, usurbildar zein zubietarrak inoiz baino indar handiagorekin altxatuko gara. Beste behin ere ozen diot; erraustegia gelditukoko dugu, gauza da noiz. Zenbat diru publiko utziko diegun alperrik xahutzen, zenbat txikizio egiten Zubieta gorroto duten Odon Elorza, Denis Itxaso, Markel Olano eta gainerakoei. Batzuek arrazoiak eta alternatibak mahai gainean jarri ditugu, aurpegia emanda. Joko zikina eta boterearen gehiegikeria besteena. Nik behintzat, publikoki eta harrotasunez egin dut lan. Hamarnaka zubietarrek, ordea, ustez nik bidalitako e-mail faltsua jaso dute, hamaika1-eko blogera zuzentzen, haien propaganda egiten. Batzuek, nonbait, berea defendatzeko aurpegia emateko lotsa! Ez naiz harritzen.

Atez atekoa Usurbilen eta Garbi-txikia Zubietan behin eta berriz hobetzen joatea dugu gaur erronka. Biharkoa, erraustegiaren alternatibari, gure sistemari, baiezko garbia ematea ospatzekoa den herri galdeketan. Hor jasoko dute erraustegi zaleek gure zaplazteko demokratikoa. Bitartean, badugu lana. Antolatu eta kalera irten osasunaren alde, jasangarritasunaren alde, Zubieta eta Usurbilen alde, demokrazia parte hartzailearen alde. Antolatu eta kalera irten erraustegiaren kontra!

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Ugaitz Agirre - **Unai Agirre** - Idoia Torregarai

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.
Hurrengo alea: urtarrilak 22. Idatzia ekartzeko azken eguna: urtarrilak 18.















# Maixu etxeko sei etxebizitzak alokairuan esleitzeko baldintzak onartu dira

**Udarregi ikastolako eraikinaren ondoan, Gernika ibilbideko hamahirugarren zenbakian kokatzen diren udal jabetzako sei etxebizitzak alokairuan esleitzeko prozesua abiatu du Udalak. Bide horretan, pauso berri bat eman zuen udalbatzak igaro den abenduaren 29an burutu zen ohiko osoko bilkuran; bete beharreko Lege eta Administrazio Baldintzen Orriak udal ordezkariek aho batez hasieraz onartu zituzten. Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita, hamar lanegunez jendaurrean erakustekoak ziren. Tarte horretan, alegaziorik aurkeztuko ez balitz, baldintza orriak behin betiko onartuko dira.**

Bestalde, bilkura berean aho batez onartu zen baita, etxebizitzen administrazioa eta mantenua kudeatzeko ALOKABIDE S.A. eta Udalaren artean izenpetu beharreko lankidetza-hitzarmenaren eranskina ere.

## Gaikako bilketa sustatzeko hitzarmena

Usurbilgo Udalak eta San Markoko Mankomunitatearen arteko hondakin kudeaketari buruzko hitzarmenean zenbait aldaketa txertatzea proposatu zuen gobernu taldeak, abendu amaierako osoko ohiko bilkuran. Bereziki bi puntutan jasotzen dira, hitzarmenean txertatu nahi diren aldaketak. Batetik, Erakunde, Merkataritza eta Industriako Hondakin Asimilagarrien atez ateko gaikako bilketa Udalak bere aginpidetzat onartzea eskatzen da. Bestetik, aipatu sistema zabaltzeko beharrezko kanpainetako aginpideak zehaztea. Helburua, gaikako bilketa bultzatzea litzateke. Gehiengoz onartu ziren aldaketok, gobernu taldearekin batera, Aralarko zinegotzien babesarekin. Aurka bozkatu zuten aldiz, EAJ-PNV eta Alkarbide udal taldeko ordezkariek.



MAIXU ETXEKO SEI ETXEBIZITZEN BALDINTZAK ONARTU ZITUEN UDALBATZAK, ABENDU AMAIERAKO OSOKO BILKURAN.

PSE-EE-ko zinegotzia ez zegoen osoko bilkuran.

## Udalak jaso du herri galdeketa egiteko baimena

Udalak esku artean du, hondakinen kudeaketari buruzko herri galdeketa egiteko baimena.

Abendu amaierako osoko ohiko bilkuran jakinarazi zenez, Udalak jaso du hondakinen kudeaketari lotutako herri galdeketa egiteko Ministro-Kontseiluaren baimena. Erabakia Madrilen hartu zuten igaro den urriaren 30ean, nahiz beranduago helarazi zaion Udalari. Baimen agiriaren irteera data, azaroaren 24koa da.

## Aminatou Haidarri udal elkartasuna

Hilabetetik gora gose-greban egon ostean bete zen Aminatou Haidarren eskaera; Saharara, etxera eta senideengana itzultzea. Oraindik berarekin zer gertatuko zen argi ez zeuden egunetan hainbat mobilizazio burutu ziren han eta hemen. Tartean, hilabete amaierako osoko ohiko bilkuran udalbatzak aho batez onartu zuen mozioa dago. Bertan Haidarri elkartasuna adierazteaz gain, etxera ailegatzeko behar beste gestio egitea eskatzen zitzaion espainiar gobernuari. Eta bide batez, sahararrek bizi duten errepresio egoera amaitu, saharar preso politikoak aske utzi, Marokoko agintariek kendutako pasaporte edota dokumentu guztiak itzuli eta autodeterminazio erreferenduma burutzea ere galdegiten zen. Testu berean, Marokoko Gobernua Mendebaldeko Saharan egiten ari diren giza eskubideen aurkako bortxaketak areagotzen ari direla ere ohartarazten da.

## Aramaioko alkatea epaitzearen aurkako mozioa

Abiadura Handiko Trenari buruzko herri galdeketa burutzeagatik, bederatzi urteko inhabilitazio zigorra eskatu dute Aramaioko Udaleko alkatearentzat. Epaiketa, datorren otsailaren 10ean burutuko da.

Usurbilgo udal ordezkariek bat egin zuten zigor eskaera horren aurka proposatutako mozioarekin azken osoko ohiko bilkuran. EAJ-PNV-ko udal ordezkaria izan ezik, abstentziora jo baitzuen. PSE-EE-ko zinegotzia ez zegoen osoko ohiko bilkuran.

## Joan Mari Torrealdai, Egunkaria auziko auziperatuetako bat

# "Oraindik prozesu honek luze joko du"

**Astearte honetarako deituak zeuden, Egunkaria kasuko auzipetuak Madrilgo Auzitegi Nazionalean. Bezperatan, Joan Mari Torrealdaik NOAUA!ri elkarrizketa eman zion. Bide seinale baikorrak dauden arren, bidea egun oraindik luzea dela adierazi du, orain arte jaso duten elkartasun keinu guztiak eskertu eta modu berean aurrera jarraitzeko eskatzearekin batera.**



Urtarrilaren 12, 25, 26 eta 27an Madrilgo Auzitegi Nazionalera joateko deitu dituzte Egunkaria auziko azuiperatuak.

**NOAUA! Madrilera bidean, nola bizi dituzue bezpera egun hauek?**

**Joan Mari Torrealdai.** Kezka eta urduritasunez bizi dugu dena.

**N. Epaiketa prozesuko datorren egutegia zein da?**

**J.M.T.** Orain urtarrilaren 12an egun osoko ekitaldia dugu, eta gero hilaren 25,26 eta 27an. Entzun egin beharko ditugu lekukoak. Pentsatzen dugunez, besteak beste, guardia zibilak egongo dira lekuko bezala. Entzutera goaz beste ezer baino gehiago, baina beti ere urduritasuna eta kezka sortzen dizu, gure etorkizuna ez dagoelako geure esku. Jarraian, guk aurkeztutako frogak datoz eta bukaeran, gure iritzia eman eta gure abokatuek gure defentsa egingo dute. Epaiketa seguruenik ez da hilabete honetan amaituko.

**N. Epaiketa abenduan hasi zen. Lehen bi saioen ostean, zer inpresiorekin itzuli zineten etxera?**

**J.M.T.** Bi egun oso desberdinak izan ziren. Lehen egunean, gu bostok deklaratu genuen, gure bertsioa emateko aukera izan genuen. Bizitako atxiloketa, inkomunikazioa, torturak kontatu ahal izan ditugu. Egunkariaren egia historikoa kontatu genuen. Gure kontakizuna ez zuten eten, alde horretatik pozik geratu ginen. Bigarren egunean, lekukoen artean, instruktore nagusia eta bere idazkaria agertu ziren, hori oso egun gogorra izan zen. Akusatuok ikusi ahal izan genituen haien aurpegiak. Oso gogorra da jakitea, zu terrorista bihurtu zaituena, ez dela estatua, ez dela Guardia Zibila, haiek biak direla.

**AUZIKO AKUSATZAILEAK**

"Hauen atzetik dagoen beso luzeak, politika ultraeskuindarrean du oinarria"

**N. Nola ulertarazi herritarrei, akusazio lanetan bi plataforma (AVT eta Dignidad y Justicia) soilik egon, eta epaiketa bertan behera ez uztea?**

**J.M.T.** Hiru akusazio mota daude; Estatuak egiten duena Fiskaltzaren bidez, kaltetuek osatutako akusazio partikularra eta azkenik, akusazio herritarra. Azken hau, beste aukera juridiko bat da, baina horren erabilera politikoa da. Azken baliabide horren perbertsio bat dago euskal kausa guztietan, plataforma hauek bere burua aurkezten dute. Epaiketaraino eramaten zaitu. Absurdua da, beraiei ez diezulako kalterik egin. Haiek eraman zituzten, Ibarretxe, Lopez eta Atutxa aulkira. Gu ere haiek garamatzate. Kausa akusatzaile berdina dute, baina ETArekiko harremana salatuz egiten den salaketa horietan, fiskalak akusatzen ez duen kasu bakarra gurea da. Nola azaldu? Hala da zoritxarrez, eta ez da kasualitatez. Hauen atzetik dagoen beso luzeak, politika ultraeskuindarrean du oinarria.

**N. Jaso duzuen elkartasun uholdearen azkenetako adibidea Bilboko manifestazioa izan zen. Halakoek zer suposatzen dute zuentzat?**

# "Zazpi urteotan jaso dugun berotasuna izugarria izan da"

**J.M.T.** Zazpi urteotan jaso ditugun elkartasun, atxikimendu, laguntza eta berotasuna izugarria izan da. Horrek mantendu gaitu zutik. Era askotakoak dira laguntzak. Gasolindegi batera joatean, eta batek sorbaldan ukitu batekin eutsi goiari esatea. Politikoki, lehengo Eusko Jaurlaritzatik izandako laguntza ere hor dago. Alderdi politiko, sindikatu, erakunde, hurbileko eta ez hain hurbilekoetatik jaso izan duguna. Bilboko manifestazioa, jendetsua eta koloretsua izan zen. Horrek lortu zuen joan ez zirenak kanpoan geratzea, markatuta geratzea. Sindikatu guztiak egon ziren, UGT izan ezik. PSOE eta PP kenduta, gainerako alderdi guztietako ordezkariek parte hartu zuten. Horrek asko asebetetzen gaitu eta garrantzia handia du, adostasuna sortu eta lortzen baita. Gure herriak une honetan adostasunerako tresna oso gutxi ditu, eta elkarlanerako tresna horietako bat, Egunkariaren aldeko aldarrikapena da. Hain zatikatua dagoen herri honetan, horrelako helduleku batzuk izatea indartu behar dugula uste dut.

**N. Aipatzekoak dira herriz herri osatu diren babes edo sostengu taldeak.**

**J.M.T.** Oso esker onekoak gara, etorri zaigun, eman zaigun laguntza guztiagatik. Guk erein eta merezi baino gehiago jaso dugula uste dut. Horretan segitzeko mezua zabaldu nahi dut, hemen ez baita bukatu. Jendeak izan dezake iritzi publikoa egunkariaren alde dagoenez, hau egina egotearen ustea. Baina guk hori ez dugu horrela bizi, kezka handiz baizik. Tentsio hori mantendu behar da. Egunen batean, arrakastaz, justizia eginez absoluzio batekin amaituko balitz, orduan denon artean ospatzeko modua egingo genuke. Denei eskerrak emateko modu bat izan nahi dugu, lortuko dugu, eta arrakasta denona izango da. Baina hori ez da bihar izango. Oraindik prozesu honek luze joko du. Bitartean, dena dago airean. Hasi besterik ez da egin, ez dakigu non amaituko den, gauza asko gerta litezke bidean. Bitartean, berdin jarraituko dugu errugabe garela aldarrikatuz.



Egunkaria bezalako elkarlanerako tresnak indartu behar direla uste du Torrealdaik.

**N. Zazpi urte beteko dira laster Egunkaria itxi zenetik. Ordutik, egunerokotasunean bizitzeko dituzuen mugak ez dira gutxi izan?**

**J.M.T.** Zazpi urteko bide luzean, gure bizitza erabat baldintzatua egon da. Astero edo hamabostean behin sinatzera joan behar da. Gure kontuak blokeatuak daude. 12.000 euro utziak ditut, neure askatasuna lortzeko. Mugimenduak kontrolatuta ditugu. Estatutik ezin dugu atera, adibidez Hendaiara ezin dut joan. Nahiz eta Euskaltzaindiak modu ofizialean baimena eskatu, Euskaltzaindiko bileretara ez dut joaterik. Neure herritzat daukat Iparraldea, baina ez dut mugimendurik neure herrian ere. Etengabe dituzu zailtasunak edozein tokitan. Nahiz presuntzioz errugabea izan, zazpi urte bizi izan ditugu guk presuntzioz errudun. Absoluzioa borrokatzen ari gara, errurik ez dugunean. Bestalde, etorkizuna baldintzatua duzunean, ezin duzu planik egin.

**N. Epaiketaren amaieran pentsatzen al duzu? Nola irudikatzen duzu?**

**J.M.T.** Oso konplexua da. Hau epaiketa bat da, gero beste bat izango da, ekonomikoa deiturikoa. Ezin dugu hau hilabete bat edo biren buruan amaituko denaren esperantzarik izan. Oso garrantzitsua izango da lehenengo epaiketan zer ateratzen den, gero bigarrenak nondik jo dezakeen jakiteko. Oraindik bide luzea dugu. Psikologikoki edozein esperantzari heldu nahi izaten diogu. Alde horretatik, Fiskaltzaren jarrerak segurantza handia eman digu. Bestalde, agertu diren beste adituen iritziak, adibidez, APM-ko (Asociación Profesional de la Magistratura) bozeramailearen adierazpenak hor daude. Gomez Bermudez epailea talde horretakoa da gainera. Pentsatzekoa da hor badagoela iritzi egin bat. Halako gauzek poza ematen digute. Bidea luzea da ordea.

Oraingoz bidean ditugun seinaleak positiboak dira, baina ikusi beharko da nola bukatzen den.

# Atez atekoarekin kritiko den plataforma, herri kontsulta berehala egitearen alde

**Hondakinen tratamenduaren harira, herri kontsulta eskatzeko plataforma sortu zen duela urtebete. Aldarrikapen horrekin bat eginez, udaletxean 799 herritarren sinadurak eta datu pertsonalak aurkeztu ziren. NOAUA!k elkarrizketa proposamena egin dio Pedro Ibarrari, plataformako bozeramaleari, baina horren ordez herritar plataforma honek idatzi bat igorri digu, euren iritzia plazaratuz. Hondakinen "bilketa selektibo eta arrazionalaren aldeko" plataforma hau, aurreko kontenedoreen zein organikoa biltzeko bosgarren kontenedorearen alde dago. Eta herri kontsulta martxan jartzeko eskatzen diote alkateari.**

Sinadura horien bitartez, "herri galdeketa bat deitzeko eskaera egiten genuen herriko hondakinen bilketa selektiboaren inguruan. Geroztik, alkateak askotan azaldu du publikoki herri galdeketa egin egingo zela, indarrean den herri galdeketen inguruko araudia errespetatuz", dio Plataformaren idatziak.

"Era honetan, Udalak balekoak eman zituen bildutako sinadura denak galdeketa egin ahal izateko. Gero, galdeketarako testua onartu zuen, hiru galdera posible proposatuz, horietako bat aukeratzeko modua emanez: atez ateko sistema, 4 kontenedoreen berrezartzea, edo 4 kontenedoreen berrezartzea gehi materia organikoa biltzeko bosgarren kontenedorea. Noski, ez gaude ados 4 kontenedoreak bakarrik ezartzearen aldeko aukerarekin, zeren era horretan ez da betetzen hondakin organikoen bilketa selektiboa egiteko betebeharrarekin. Aukera horrek legearen aurkako zerbait proposatzea suposatzen du".

Azken baldintza bat falta zen: herri kontsulta egiteko Espainiako Gobernuaren baimena. Plataformaren iritziz, "alkateak, kontsulta egin egingo zela promesari jarraituz, aipatutako baimen eskaera bideratu zuen, baina –ikusi denez– Espainiako Gobernuak eman beharreko baimena ez zuela emango itxaropenarekin. Baina 2009ko urriaren 30eko Ministroen Kontseiluak herri kontsulta horren ospatzea onartu zuen, baimena biltzen duen idatzi hori 2009ko azaroaren 30ean udaletxera iritsi zelarik, zati dispositiboak honakoa adierazten zuen, *hiri hondakinen kudeaketaren inguruan Usurbilgo (Gipuzkoa) Udala herri kontsulta bat egiteko baimentzea*".

Udalak pauso sendorik ez du eman nahi, iradokizun hori ere egiten dute Plataformakoek: "Geroztik, alkateak ez du erabakirik hartu herri galdeketaren inguruan, nola egin ez dakiela argudiatuz, nahiz eta asesoramendurako dituen tekniko denak eskura izan. Hori da orain kontsulta atzeratu edo kontsulta ez deitzeko duen aitzakia bakarra. Gure ustez, ordea, arrazoia argia da: ez du kontsulta egin nahi emaitza kontenedoreak berrezartzearen alde izango den beldurra duelako, organikoarentzat bosgarren kontenedorea barne; eta ez atez atekoaren alde. Alkatea inkesta telefoniko baten atzean babestu nahi da, libre, sekretua eta berme demokratiko guztiak beteko dituen herri kontsulta bat ez egiteko. Inkesta telefonikoa irailaren amaieran egin zen eta emaitzak azaroaren 27an eman zituen aditzera alkateak, soilik portzentaietaz hitz eginez eta ez aplikatu behar ziren herritar kopuruaren inguruan. Inkesta hau ez zen zientifikoa izan, zeren ez ziren publiko egin datu guztiak inkesta telefoniko bat zientifikotzat eta egiazkotzat eman dadin: erabilitako metodologia, eremu-lanaren egunak, kontsultatuak izan ziren herritarren kopuruak, auzo, sexu eta adin lagin aleatorioei zegozkien datuen ziurtasuna, egindako galderak, inkestaren errore mailaren gutxi-askoren kopuruak…".

Horregatik, Plataformakoentzat "onartezina" da inkesta telefoniko horren arabera usurbildarren %68a atez atekoaren alde dagoela esatea, "zehaztu gabe iritzi hori horrela adierazi zuten herritarren kopurua zenbatekoa izan zen. Gure datuen arabera, ez ziren 500 baino gehiago izan telefonikoki kontsultatuak izan ziren herritarrak, herri kontsulta eskatzeko modu librean eman zuten herritarren kopurua (799) baino askoz baxuagoa, atez atekoarekin ados ez zeudenak. Hauek bai direla datu benetazkoak eta egiazkoak".

Atez atekoaren aurka herritar asko daudela diote Plataformakoek NOAUA!ra igorritako idatzian: "ziurtasun osoa dugu Usurbilgo herritar askok ez dutela atez atekoa onartu. Ingurura begiratzea besterik ez dago, egunero ikusteko poltsa asko herrian sakabanatuta, paperak, zaborrak… Gainera, sistema horren inguruko dena (eskulana, asesoreak, zintzilikagailuak, enpresa berria, ibilgailuak, inkesta telefonikoa, konpostaje planta…) Udaletxean amaierarik gabeko zulo ekonomikoa ari da egiten, gure zergen kontura. Batzuetan azaltzen diren datu horiek, atez atekoarenak iazko datuekin alderatutakoak, soilik portzentaiak dira, kiloetan soilik kantitate batzuk zehaztuz, argi utziz hilean 80 tona zabor desagertu direla. Baina nora joaten ari da zabor hori?".


PLATAFORMAKOEK ZALANTZAN JARTZEN DUTE UDALAK EGINDAKO INKESTA TELEFONIKOAREN FIDAGARRITASUNA.

Herri kontsulta lehen bai lehen martxan jartzeko eskaera berresten dute atez atekoarekin kritiko diren herritar hauek: "Gure aldetik, udaletxeko zinegotziekin kolaboratzeko prest gaude, kontsulta egiteko beharrezko parametroak ezartzeko: botoa emateko eskubidea duten herritarren zentsoa, propaganda, kontsultaren data, bozkaontzien mahaien osatzea, interbentoreak, papeletak, berme-komisioa eta abar. Une honetatik, zera proposatzen dugu, bigarren aukera –lau kontenedoreak ezartzearen inguruko aukera– erretiratzea, eta bi aukera hauen artean bakarrik ahalbidetzea kontsulta: atez atekoa edo 5 kontenedoreen erabilera (organikoarentzat beharrezkoa dena barne). Era horretan soilik izango zen garbia eta tranparik gabea herri kontsulta. Horregatik guztiagatik, gure plataformatik, alkateari exijitzen diogu behin betiko erabakia har dezala eta herri kontsulta egiteko beharrezko diren bitarteko denak jar ditzala. Atez atekoaren onuretaz eta esaten duenaz hain seguru badago, ez luke kontsultaren emaitzen beldurrik izan behar. Guk demokratikoki bai onartuko ditugula".

# Ondo pasatzeko aurkeztu, eta irabazi!

**Txikitan, Errenteriako Gabon Kantuen Sariketan hartu zuten parte. Orduko oroitzapenak gogoan, eta Zumartek 25 urte betetzen dituen honetan, senior mailako txapelketan parte hartzera animatu zen gazte koadrila bat. Hara non sariketa irabaztea lortu zuten pasa den larunbatean. Argazkian, kantaldiaren pasarte bat. Zorionak denei.**



IRABAZI ZUTELA JAKITEAN, POZARREN JARRI ZEN KANTARI KOADRILA HAU.

Hauek dituzue lehiaketan kantuan aritu ziren abeslariak eta zuzendaria: Aintzane Aizpurua, Itziar Otxagabia, Amaia Iglesias, Maialen Pagola, Laida Gonzalez, Agurne Alkorta, Nagore Unanue, Maria Arruti, Ane Irazusta, Ekiñe Olaizola, Nerea Bordagarai, Maialen Unanue, Alazne Begiristain, Praixku Aranburu, Julen Otxagabia, Jon Imanol Etxabe, Joxemari Otxagabia, Ixak Arruti eta Iñaki Zugasti.

Zuzendari lanetan Amaia Aldalur aritu zen.

## Dantza ikastaroa antolatu du Belmonte auzo elkarteak

Belmonte auzo elkartea fandango eta arin-arin ikastaroa atolatzeko asmotan dabil. Ikastaroko eguna eta ordutegia zehazteko, urtarrilaren 27an arratsaldeko 19:00etan bilera deitu dute Harane Futbol zelai ondoko lokalean.

Behin bilera eguna eta ordutegia zehaztu ondoren, ikastaroa otsailean hasiko da. Bertan edozeinek eman dezake izena.



## Santa Agedarako entseguak datorren astean hasiko dira

Toki askotan bezala, Zubietan ere Santa Ageda bezperan kantuan ateratzeko ohitura dute. Datozen asteetan, entseguak egingo dituzte. Oraingoz bi egun hauek zehaztu dituzte: urtarrilaren 22an ostirala eta 29an ostirala, arratsaldeko 19:00etan. Deialdia ez da ume txikientzako. Santa Ageda bezperan aterako dira kantuan, otsailaren 4an arratsaldeko 18:30ean.



## Bihurri Txiki ludotekako bazkide izateko aukera zabalik

Bazkide egiteko aukera eskaini nahi dute Bihurri Txiki ludotekako kideek. Interesa dutenek ludotekara jo dezakete eta izena eman, datozen urtarrilaren 18an eta 25ean, arratsaldeko 17:00-18:00 artean.

Ludoteka, lehengo Zahar Egoitza zegoen tokian kokatzen da. Bestalde, jada bazkide direnentzako ohar hau helarazi dute Bihurrikoek:

"Urtarrilaren 18an zabaldu eta martxoaren 31 arte luzatuko da urteko kuota ordaintzeko epea. Iaz bezala, 10 eurokoa izango da kuota. Kontu korronteko zenbakia Bihurri Txiki ludotekan bertan aurki liteke".

# Eguberriak, kantari

**Eguraldiak askorik lagundu ez arren, euri tantek ez zituzten gabon kantak abesteko deituak zeuden ekitaldiak zapuztu. Baserritar jantziak soinean, Aginagan, Zubietan eta Kaxkoan kantu giroa nagusitu zen abenduaren 24an, goiz nahiz arratsalde partean.**

Entsegu saioaren ostean ekin zion kalejirari, Aitzaga paretik Usurbilen nahi ditugu elkarteak antolatuta, gabon kantak abestera irtendako herritar taldeak. Ordu berean, hauek ere euri mehatxuari aurre eginez, abiatu zen Parrokiako taldea Kale Nagusitik. Bakoitzak bere ibilbidea osatu ostean, aurreko urteetako ohiturari eutsiz, pilotalekuan bildu ziren iluntzean. Guztiek batera, gabon kanten inguruan amaiera eman zioten arratsaldean ekindako kalejirari.



USURBILEN NAHI DITUGU ELKARTEAK ETA PARROKIAK ANTOLATUTA, GABON KANTAK ABESTERA IRTENDAKO BI HERRITAR TALDEEK BATERA AMAITU ZUTEN KALEJIRA, ILUNTZEAN PILOTALEKUAN.

### Zubietan eta Aginagan

Kantatzera irtendako herriko bi taldeok aginagar eta zubietarren lekukoa hartu zuten. Goiztiarrenak, Aginagakoak izan ziren. Katekesi taldeak deituta gabon kantak abestera irten ziren goizeko lehen orduetan. Bazkalostean berriz, Zubieta aldean deitua zuen ekitaldia, Zubieta Lantzenek. Zumarteko abesbatza taldekoak abenduaren 22an burutu zuten kalejira. Bost hitzorduokin eta abenduaren 24an zehar euren kasa abestera irten ohi diren beste zenbait herritarrekin, argi denez, oraindik bizirik jarraitzen du eguberri bezperatan euskal gabon kantak abesteko ohiturak.

# San Esteban Txiki festa, babesean

**Jai Batzordeak euriagatik babesa bilatu du aurtengo San Esteban Txiki eguna antolatu eta ospatzerakoan. Horregatik, salda beroa eta haragi egosia inoiz baino dastagarriago bihurtu ziren abenduaren 26an.**

Bezperatik lanean jardun zuten Jai Batzordeko kideek, eguberri egun ostean Urdaiagara igotzen zirenek hamaiketako ederra dasta zezaten. Eta ohiturari eutsiz, urteroko hitzorduak ez zuen hutsik egin. Abenduaren 26an goizeko hamaiketako mezatara hurbildu ziren herritarrak, ondoren, Jai Batzordekoen biltokiko aterpera sartu eta salda beroa edan edota txorizo nahiz haragi egosi pintxoa jan ahal izan zuten. Giro hotzari aurre egiteko errezeta hoberena.



JAI BATZORDEKOEK AUZOKO FESTAK ANTOLATZEKO ERABILI OHI DUTEN GUNEAK, PASA DEN ABENDUAREN 26AN ATERPE LANAK ERE EGIN ZITUEN.

# Jendetza jolas parkean

Herriko kirol taldeen oporraldia dela eta, beste urte batez, Kiroldegiko eskubaloi pista haur eta gaztetxoen parke erraldoian bihurtu da eguberriotan. Erraldoia, baina era berean, geroz eta txikiagoa den gunea, jolas eskaintza handituz baitoa, eta zer esanik ez, parte hartzea. Puzgarrietan saltoka, marrazten, korrika aurrera eta atzera... Denborapasarako aitzakia ugari aurkitu zituzten Oiardo Kiroldegira hurbildu zirenek, pasa den urtarrilaren 2tik 4ra artean. Egunpasa joandako bat baino gehiago zegoen tartean. Gaztetxo eta haien gurasoek oporraldiari amaiera emateko aukera ezinhobea izan zuten.



KIROLDEGIAN JARRITAKO JOLAS PARKEAK ARRAKASTA HANDIA IZAN ZUEN.

# NOAUA!ko bulegoan ere, kantuan



ABENDUAREN 24AN HERRIKO ZENBAIT TALDEK GABON KANTAK ABESTERA IRTETEKO DEIALDIAK EGINAK ZITUZTEN. BAINA AIPATU EKITALDIEZ GAIN, EUREN KASA KANTATZERA ANIMATU ZIREN ARGAZKIAN AGERI DIRENAK ERE.

## Andatzpe irabazle, elkarteen arteko mus txapelketan

Elkarteen arteko mus txapelketako finala Mahaspildegin jokatu zen. Irabazleak, baina, Andatzpekoak izan ziren, Jose Ramon Sarasola eta Santi Zumeta hain zuzen. Bigarren Eguzki elkartea izan zen. Ordezkariak, Antonio Lozano eta Gabriel Sanchez izan ziren. Hirugarren, Yoko Garbikoak sailkatu ziren. Eneko Izagirre eta Imanol Aizpurua izan ziren jokoan aritu zirenak.

Eta laugarren, Eguzki elkartekoak, Agustin Calvo eta Narciso Lopez mus jokalarien eskutik.

### Babesleei eskerrak

Bestalde, mus txapelketako antolatzaileek txapelketa honetan lagundu duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiete: Saltxipi, Atxega, Txitxardin Beltz, Olarrondo, Aginaga, Aialde Berri, Antxeta, Araeta, Bordatxo, Maykar, Patri, Saizar, Sekaña, Urdaira, Barazar, Alamandegi, Txiki Erdi, Irigoien eta Iruin.

### Sailkapena

1. Andatzpe
Jose Ramon Sarasola, Santi Zumeta

2. Eguzki
Antonio Lozano, Gabriel Sanchez

3. Yoko-Garbi
Eneko Izagirre-Imanol Aizpurua

4. Eguzki
Agustin Calvo, Narciso Lopez



TXAPELKETAKO IRABAZLEAK ANDATZPE ELKARTEKOAK IZAN DIRA.

# Hotzari aurre eginez iritsi ziren erregeak

Giro busti eta hotzari aurre egin behar izan zioten hiru erregeek, urtarrilaren 5ean Urdaiagatik kaxkora osatu zuten ibilbidean, baina horregatik urteroko kabalgatari ez zioten hutsik egin. Meltxor, Gaspar eta Baltasar gure artean izan ziren, baita haur eta guraso andana ere, bereziki iluntzean frontoi inguruan. Gaztetxo eta heldu bat baino gehiago erregeak agurtu nahian, eta gainerakoak, errege egun bezperan hain ohikoak izan eta kabalgatan jaurti ohi diren gozoki harrapaketan aritu ziren. Urtero bezala, erregeak joanda amaitu ziren, haur eta gaztetxoei zuzenduta eguberrietarako herrian antolatutako ekitaldiak.



ERREGEEN AGURRAREKIN AMAITU ZEN KABALGATA PILOTALEKUAN.

# Abizenak euskaraz jartzeko kanpaina jarri du martxan berriz ere UEMAk

**Abizenak euskalduntzeko kanpaina berria abiatu du Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA). Norbere euskal abizena ofizialki eta leku guztietan euskaraz agertzea nahi duenak, lan erraza du. Bake epaitegira joan besterik ez du.**

Bake epaitegian abizena euskal grafiaz idatzi nahi dela adierazi behar da. Pauso hau ematen duenak, gune berean eskaera orri bat jasoko du, norbere datuekin bete beharko dena.

Horrekin batera, bake epaitegian bertan zenbait agiri aurkeztu beharko dira. Batetik, nortasun agiriaren fotokopia. Adinez nagusia ez denak, gurasoena beharko du. Bestetik, epaitegian bertan eskatu ahalko den hitzez hitzeko jaiotza ziurtagiria. Errolda agiria, udaletxean eskuratu beharrekoa. Baita familia liburuaren fotokopia, ezkonduta dagoenak edo seme-alabak dituenak. Hamasei urtetik gorako seme edo alabarik duenak, aipatu gaztearen nortasun agiriaren fotokopia ere aurkeztu beharko du abizena euskaldundu nahi badu behintzat.




BAKE EPAITEGIRA JOANDA EUSKARATU DAITEKE ABIZENA.









# Bus-taxi zerbitzuak ibilgailu berri bat izango du

**Auzoetara eta baserrietara ez zen garraio publikoa iristen. Hutsune hori betetzera etorri zen bus-taxi zerbitzua. Orain arte, bus-taxi gisa erabili den furgoneta zaharra berri batek ordezkatuko du laster. 2010 urteak, beraz, ibilgailu berri bat ekarriko die zerbitzu honen erabiltzaileei.**

2010 urtean ordutegi bera izango du bus-taxi zerbitzuak (ikus 16 or). Baina mugikortasun arazoa dutenentzat ere, eskura dago Behemendik eta Udalak elkarrekin martxan jarritako garraio zerbitzua. Mugikortasun arazoak dituzten 65 urteko herritarrei, euren etxeraino joango zaie bila bustaxia. Eta zerbitzua doan da. Hori bai, aukera honetaz baliatzeko aldez aurretik deitu behar da honako telefono mugikorrera: 630 64 35 96.

### Erabilera, gorantz

Erabiltzaile kopuruari dagokionez, bus-taxiaren erabilera sendotu egin da azken hilabeteetan. Behemendiren eskutik jaso ditugu bus-taxi zerbitzuari buruzko estatistikak. Datuak ondo ulertzeko, zerbitzua abuztuan eten egin zen eta uztailean goizetik aritu zen bakarrik.



FURGONETA BERRIA LASTER IZANGO DA MARTXAN.

## Bus-taxiaren erabileraren bilakaera




## KzGuneak telefono zenbaki berria du

Usurbilgo KzGuneko telefono zenbakia aldatu dute duela egun gutxi. Hemendik aurrera hauxe izango da KzGunearen kontaktua: 943 57 09 99.

Urtarrilean goizetik izango da KzGunea zabalik, 9:00-13:00.

## Odol ematea

Urtarrilaren 4an 41 lagun izan ziren odola ematen. Gehiago izan ziren hurbildu zirenak, baina denak ez zuten ematerik izan.

Denei eskerrak eman nahi dizkie Odol Emaileen elkarteak. Hurrengo emanaldia, Usurbilen, martxoaren 1ean izango da.

LATAILLADE ITURGINTZA
GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK
Ariztitxo 8,behea · 943 363 348 · 609 888 021

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
*Kale Nagusia 10, 1.C4* *20170*
*Tlf 943 37 08 78* *USURBIL*

# Eskubaloi festa, Mirotzen oroimenez

**Mirotzen oroimenezko infantil mailako bigarren eskubaloi festa burutu zen igaro den abenduaren 29an. Hamabi talde bildu ziren kiroldegian, lehiakortasuna alde batera utzi zen ekimenean.**

Antolatzaileak pozik ageri dira, ekimenak izan duen harrerarekin, asteartea izan arren, Kiroldegia jendez bete baitzen. Infantil mailako seina neska eta mutil taldeek parte hartu zuten, tartean, Gipuzkoa zein Euskal Herriko beste txokoetatik etorritako kirol taldeek. Hain zuzen, antolatzaileek beste probintzietako kirolariekin jokatzeko aukera eskaini nahi baitzieten herriko eskubaloi jokalari gaztetxoei. Lagun arteko sailkapen buruan, Nafarroako selekzioak amaitu zuen. Bigarren Zumaiako Pulpo taldeak. Hirugarren eta seigarren postuetan usurbildarrak; neskak mutilen aurretik.



Giro ederrean pasa zuten eguna. Irudian, Usurbilgo taldea.

Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete laguntza eman dutenei: arbitro lanetan, partiden antolaketan, bazkaria prestatu eta zerbitzatzen aritu zirenei, udal-kirol patronatuari, Saizar sagardotegiari, Euskadiko kutxari, Kutxari, Juantxo harategiari eta arkumearen errifak erosi zituztenei.



Nesken taldeak ere hartu zuen parte infantil mailako txapelketa honetan.



## Ondo hasi du urtea Usurbilgo Judo Taldeak

Euskadiko Kadeteen Judo Txapelketa Gasteizen jokatu berri da eta Usurbilgo Judo Taldeak urrezko hiru domina lortu ditu: Beñat Aburuza (-81 kg); Jon Etxabe (-90 kg); Ane Cazorla (-63 kg).

Usurbilgo Judo Taldeak, bestetik, 10 judoka sailkatu ditu Espainiako Judo Txapelketarako. Iparraldeko sailkatze fasean hauek izan ziren emaitzak:

Urrea: Aitzol Arrozpide (-73 kg), Nerea Sanz (-48 kg), Aiora Arrillaga (-52 kg).

Zilarra: Andoni Aizpurua (-60 kg), Ibai Peña (-66 kg), Xabier Urkizu (-81 kg), Eneritz Agoües (-48 kg), Maier Uriarte (-63 kg), Nerea Arruti (-70 kg), Jessica Romero (-78 kg).

Brontzea: Mikel Camarero (-81 Kg).

Iker Lizarribarrek (-100kg) eta Mari Jose Sardonek (+78 kg) ez zuten parte hartzerik izan, lesioak tarteko. Aurreko urteetan domina ugari lortu zituzten.

## Atxegan birentzat afaria



Jorge Garciak 6.277 zenbakiarekin azken zozketa irabazi du. Eskubaloi elkartekoek, ohi bezala, zozketan parte hartzen duten jatetxeak eta errifak erosten dituzten herritarrak eskertu nahi dituzte.









# Buruntzazpi txirrindulari eskolak kirol materiala jarri du salgai

**Bigarren denboraldian burubelarri murgilduta, gustura eta taldea indartzen joateko asmoz dabiltza, Buruntzazpi txirrindulari eskolakoak. Usurbil eta Lasarte-Oriako txirrindu zaleak biltzen dituen klubak pauso berri bat eman du oraingoan, kirol materiala salgai jarri baitute. Mallot-ak edota kaskoak eskuratzeko urtarrilaren 25era arteko epea dago.**



URTARRILAREN 25ERA BITARTE ESKURA DAITEKEZ TALDEAREN MALLOTA ETA KASKOA.

**NOAUA! Bigarren denboraldiko zein unetan zaudete?**

**Alex Urkiola.** Ziklokros denboraldia bukatzeko bizpahiru lasterketa gelditzen dira. Ziklokroseko kanpaina bukatzear, gazteak errepidea lantzen hasi dira. Jubenilen taldea badugu, bost kidez osaturikoa. Nik uste aurten maila polita emango dutela.

**N. Taldea nola ikusten duzue, egonkortuta?**

**Xabier Carbayeda.** Prestatzaile bat badugu, Ramon Unanue, hark prestatzen ditu talde kideak. Alde horretatik indartsu gaude. Udalak ere lokala uzten digu, Zubeldia anaiek bizikletak, babesle batzuk ere lortu ditugu, auto bat, mallot-ak... Taldea pixkanaka gorputza hartzen ari da, ondo goazela uste dut. Guztira, 60 bat lagun izango gara.

**A.U.** Materiala lortzen eta zaharberritzen ere aritu gara. Finkatuta egoteko, dirua behar da. Baina talde egitura bezala finkatua dago bai. Ramon Unanue oinarri gisa hartuta, berak lehen eman izan dituen fruituak ikusita, orain ere berriz emango dituela seguru gaude. Gure asmoa betidanik, ziklokrosa indartzea izan da.

**N. Taldea nortzuk osatzen duzue?**

**A.U.** 22 hasiberriek, lauzpabost alebinek, bi infantilek, kadete batek, bost jubenilek eta hogeitik gora zikloturistek.

**N. Buruntzazpiko kide izan nahi duenak nora jo dezake?**

**A.U.** Taldea edonorentzat eta edozein diziplinetarako irekia dago. Txirrindulari izan nahi duenari, aukera eman nahi diogu. Neskak ere animatu daitezela. Hor badago neska bat sartuko litzatekeena, baina bakarra da. Neskek parte har dezatela. Probatu eta gustuko ez duenak ez du inolako obligaziorik. Datorrena, gustura etor dadila.

**XABIER CARBAYEDA**

"Martxoaren 13an infantil eta alebin mailakoentzat lasterketa antolatu dugu Zumartegin"

**N. Herriko kirol eskaintzan zuen tartea bilatzea erraza egin zaizue?**

**A.U.** Xabier eta biok ahoz ahokoarekin hasi ginen, eta gerora, uste genuena baino jende gehiago etorri da, halako talde baten beharrean zegoela.

**N. Ezustekoa izan da beraz?**

**X.C.** Lehen ere bazen zaletasuna hemen, baina gertatzen zen, Donostiara edo Andoainera joan behar zutela txirrindulari izateko. Gure helburua, zaletasun hori Lasarte-Orian eta Usurbilen biltzea zen; lehengoa bildu eta gazte berriak bizikletan ibiltzera animatzea.

**N. Zer diote gaztetxoek?**

**A.U.** Gazteen partetik baino gehiago gurasoek diotena azpimarratuko nuke. Batek lehengoan zioenez, haurra aste osoan txirrindularitzako eguna noiz helduko zain egoten da. Eta egun horretan gosaldu ondo eta handik etortzean ondo bazkaltzea nahi izaten duela.

Hori lortzea, guretzat asko da. Bizitzeko filosofia bat eskaini nahi diegu, biharko egunerako orain ikasitako diziplina ondo etorriko zaielako.

**N. Probek, erakustaldiek… Zer moduzko harrera izan dute?**

**A.U.** Oso gustura gaude. Jendearen berotasuna nabarmentzen zen, edozein etorri eta laguntza emateko prest izaten zen. Eskertzekoa da.

**N. Epe motzera, hitzordurik?**

**X.C.** Martxoaren 13an Zumartegi industrialdean infantil eta alebin mailakoentzat lasterketa antolatu dugu. Bestalde, festetan zerbait egiteko asmoa dugu.

## Agenda !

**Urtarrilak 13 asteazkena**
- **Kultura Aholku Batzarra,** 18:30ean Udaletxean.

**Urtarrilak 17 igandea**
- **Zinea Sutegin,** 17:00etan. "Barriola, San Adriango azeria". 5-12 urtekoentzat. Sarrerak, 2 euro eta egunean bertan salgai.

**Urtarrilak 30 larunbata**
- **Kantu-jira kalez kale,** 19:00etan frontoian.
- **Hor al zaude? antzerki saioa,** 20:00etan Sutegin. Sarrerak aldez aurretik 8 euro kiroldegian. Egunean bertan, 10 euro.

## Eguneko goardiako farmaziak

**Urtarrilak 14, osteguna**
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

**Urtarrilak 15, ostirala**
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Urtarrilak 16, larunbata**
Gil, Nagusia 24 Lasarte
Oa, Kontzeju Zarra, 11 Usurbil

**Urtarrilak 17, igandea**
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Urtarrilak 18, astelehena**
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Urtarrilak 19, asteartea**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Urtarrilak 20, asteazkena**
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Urtarrilak 21 osteguna**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Urtarrilak 22, ostirala**
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

**Urtarrilak 23, larunbata**
De Miguel, Nagusia32 Lasarte
Iturralde, Borda Berri, 1

**Urtarrilak 24, igandea**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

*GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ*
***Chucla farmazia** (22:00-09:00),*
*Kardaberaz, 48, Hernani (943 551 793)*
**Usurbilen, soilik eguerdira arte*

# Barriola azeriaren abenturak, igande honetan pelikula Sutegin

**Barriola azeriaren eta Aizkorriko ikazkinen istorioa kontatzen du euskarazko film honek. Barriola izena duen azeria buru dutela, bidelapur taldea osatu dute inguruko ikazkinek. Baina Graziana izeneko oilo batekin maiteminduko da Barriola. Eta gauzak aldatzen hasiko dira....**

Azeria, lainoetatik erori zenean, maltzur eta azkar bilakatu zen. Ordudanik begi bat oiloiengan eta bestea putrearengan jarria du, ikazkinek bezala. Zertarako nekatu basoan, mendian zehar poltsa beterik duten pertsona burugabeak badabiltza? Batzuetan gizonari, besteetan azeriari edota ikazkinari. Aizkorriko ikazkinak horrela bizi dira, bidelapurren gisan. Denen buru, Barriola azeria.

Hala ere, badute zertan pentsatua ikazkinek. Barriola azeria Graziana deituriko oilo batez maitemindu da.



BARRIOLA AZERIARI BURUZKO PELIKULA 5-12 URTEKOEI ZUZENDUTA DAGO BEREZIKI.

**Fitxa teknikoa**
Marrazki bizidunak. 70 min.
Euskal Herria, 2008.
Zuzendaria: Juanba Berasategi.
Gidoia: Koldo Izagirre.
Sarrerak: egunean bertan, 2 euro.
5-12 urtekoei zuzendua.

# Bi aste barru, "Hor al zaude?" antzerki saioa

Urtarrilaren 30ean iritsiko da Sutegira "Hor al zaude?" antzerki obra.

Ainhoa Aierbe eta Asier Hormaza dira antzezlan honen aktore nagusi eta bakarrak.

Jatorrizko lana Javier Baute antzerki-egile argentinarrarena da, baina Joseba Apaolazak zuzendu du euskarazko egokitzapena. Argumentuari dagokionez, etxe berri batera bizitzera joaten den bikote baten istorioa kontatzen du obrak. Bertan, hirugarren elementu bat aurkituko dute, euren bizitza hankaz gora jarriko duena. Sarrerak kiroldegian jarriko dira aldez aurretik salgai.

## Pilota partidak

**URTARRILAK 15 OSTIRALA**
**AGINAGAN, 18:30ean**
EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA
NAGUSIAK banaka
USURBIL - GURE TXOKOA (Bera)
(Ibon Aranalde)

UDABERRI TXAPELKETA
KADETEAK 3. maila
USURBIL - LAPKE (Lazkao)
(Iñigo Ibargoien - Imanol Rebollo)

PALETA GOMA GIZONAK 1. maila
USURBIL - AÑORGA
(Iñigo Huegun - Haritz Urdanpilleta)

**URTARRILAK 16 LARUNBATA**
**USURBILEN ,11:30ean**
UDABERRI TXAPELKETA
NAGUSIAK 1. maila
USURBIL 2-LAGUNAK 1 (Elgoibar)
(Jabier Santxo - Julen Urruzola)

### ETXEBIZITZA

- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- Landetxe bat saltzen da Alfaron (Errioxan). Astebukaerak eta oporraldietarako egokia. Terreno eta pistinarekin. Herritik 1,2 Kilometrotara. 2 logela, egongela tximenearekin, sukaldea, komuna eta portxea. 675702428 (gauetan).
- Atxegaldeko Erdiko Kalean 81 metro karratuko etxea salgai. Erreformatua, prezioa 47 milloi pezeta. Interesatuak deitu 600369013 telefonora.
- Logela bat alokatzen da etxe konpartitu batean. Pisua berria da eta Usurbilgo kaxkoan kokatuta dago. 610 319 405.
- Etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. Interesatuak deitu 20:00etatik aurrera 661568471.
- Gela bat alokairuan pertsona serio batentzat, pisu berri batean. 300 euro, gastuak aparte. Usurbil inguruan. 609 901 734 edo 943 575 788.
- Muna Lurra kalea 16, 3.C salgai. Eguzkitsua eta berritua. Interesatuak deitu: 637225620.
- Pisu bila nabil Usurbilen. Alokairuan nahi nuke. 664 885 737.
- 95 metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldaketak egiteko aukera asko. 135.500 euro. 671417240.
- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailean. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Bordaberri 3 kalean etxe bat daukagu salgai. 676910638.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Apartamentu-duplex rustikoa salgai. Zubietan Elizaren ondoan. 197.000 euro. 678084020.
-Santuenea 26an 60metro karratuko etxea daukagu salgai. 2 gela, sukaldea handia, etxeak kanpokaldera ematen du, gasa eta kalefazioa ditu. 200.000. 666539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.
-Lasarten apartamentu bat salgai, egoera onean. Erdigunean. Toki lasaia eta berritu berria. Bikote batentzat egokia. 657708866

### SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Aprilia Chester R-125 motorra daukagu salgai. Egoera onean eta prezio interesgarria. 661618970
- Beheko Kale Atxegalden lokal bat daukagu salgai. Interesatuak deitu 645736726 telefonora.
-Karabana bat salgai. Modelo zaharra da baina egoera oso onean dago. Prezio interesgarria. 646514494
-Mitsubishi L200 bat salgai. SS-AZ eta egoera onean. 646514494
- Mendiko terrenoak erosiko nituzke. Basoa ateratzeko edo basorik gabea ere bai. 943362237.
-Atxegalden 33 metro karratu dituen lokal bat alokatzen da. Sarrera egokia. 943373414. 280 euro hilean.
- Garaje bat alokatzen da Bizkarre kalean. Neurriak 2,5m x 5m eta 2,1 metrotako altuera. 943361265.
- Usurbilgo industrialde batean 220 metro karratuko pabiloi bat alokatzen da. 616926027.
-50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajean, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.
- Etxebeste kalean 44 m2-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.

### LANPOSTUAK

#### Lan-eskaerak

- Astebukaeratan lan egiteko, zerbitzari moduan aritzeko pertsona bat behar dugu. 943 36 67 10.

#### Lan-eskaintzak

- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
-Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411
-Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 630438571
-Gizon bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko edo baserriko lanak egiteko. 662461568
-Esperientzia duen neska bat behar da goizez etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. 687055166.
-Emakume bat (paperak ditu) eskaintzen da pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile aritzeko. 618128461 / 943575788.
- Mutil gazte bat eskaintzen da eraikuntza lanak, garbiketak eta baserri lanetan aritzeko. 677593772
- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean. Iñaki: 677 44 31 40.
-Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nituzke. Interesatuak deitu 656446835
- Pertsona helduak zaintzeko neska bat eskaintzen da. Esperientziduna. 606 800 837.
-Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
-Emakumea interna edo goiz zein arratsaldez orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Emakume bat haurrak zaindu edota orduka etxeko lanak egiteko prest. 943 575 788.
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
-Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608835033
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646717676.
-Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943368574.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620185927.
-Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685716774.
-Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630768325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.
-Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
-Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

### BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Urtarrilak 6an harribitxiak zituen urrezko eraztun bat galdu nuen Eliza eta Kaffa kafeteri artean. Norbaitek aurkitu badu eskertu nuke telefono honetara deitzea 943365631.
- Zaldi bat jartzeko lur sail bat edo ikuilu bat alokatuko nuke Usurbil edo inguruan. 616260451
-7 gazteko lagun taldea gara eta lokal bat alokairuan hartuko genuke, 200 bat euro. 606 101 980.
- Ostalaritzako makinaria, kafetegiko altzariak salgai; aulkiak, mahaiak, kafe-makina,... 607 389 570 (Mireia). istergo@hotmail.com
-Atxegalden 30 metro karratuko lokal bat alokatzen da (lehen Truke). 943 373 414.
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki)
- Belardiak behar dira belarra ontzeko: Usurbil, Lasarte edo Donostia inguruan. Danitaz galdetu. 607 457 004 / 943 36 60 40.
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
-Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Etxebizitzen erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. 626 220925



**Zorionak zuri....**
zorionak beti....
zorionak Alex
zorionak beti
5 muxu haundi!!!



**Zorionak Amaia,** Urtarrilaren 7an egin zenituen 7 urte. Zorionak eta besarkada handi bat etxekoen partez gure printzesarentzat.



**Zorionak Enay!** Urtarrilaren 16an 2 urte beteko dituzu. Zorionak etxekoen partez.



**Zorionak Unax eta Enara** maiteak, urte hasierarekin bost urte bete dituzue. Zorionak eta mila muxu zuen gurasoen partetik. Segi horrela bikote!

## JAIOTZAK

**Alaitz Alzas Aparicio,** abenduak 16.

**Martxel Del Campo Morales,** abenduak 17.

**Arai Garcia de Eulate Azkonobieta,** abenduak 21.

**Iraia Palacios Quintas,** abenduak 23.

**Unax Eizagirre De Jesus,** abenduak 26.

**Garazi Urdanpilleta Murugarren,** urtarrilak 2.

## HILDAKOAK



**Joxepa Maiz Illarramendi**
91 urterekin hil zen, abenduaren 21ean

## HILDAKOAK



**Joxepa Iturrioz Huizi**
86 urterekin hil zen, abenduaren 23an

## HILDAKOAK



**Joakina Beloki Etxeberria**
89 urterekin hil zen, abenduaren 27an

## HILDAKOAK



**Venancio Curiel Gonzalez**
69 urterekin hil zen, abenduaren 28an




# "EL ALMACEN DE AGINAGA"

## GIPUZKOAKO LEHEN ALTZARI FABRIKA

**ALTZARIAK, SOFAK, KOLTXOIAK...**

**FABRIKAKO PREZIOAK!!!**

Mahaiak, aulkiak, logelak, sofa-oheak,
literak, sarrerako altzariak,
neurri eta kolore guztietako armairuak...

ORDUTEGIA:
Astelehenetik Larunbatera (ostegunetan jai)
10:00-13:00 eta 16:30-19:30
IGANDEA: 11:00-14:00

Errasti industrialdea (Aginaga sagardotegiaren ondoan)
AGINAGA 943 36 93 59



# ARTZABAL BASERRIA

Artzabal

*Eguneroko menua 9€*

*Ostegunetik Igandera menu bereziak*

*Pintxoak: hotzak eta beroak*

*Kaxuelitak...*

# TxoTx!!




AIALDE BERRI
Tel.: 943 365 031
Mugikorra: 670 027 731
Santuenea




LARRE-GAIN
DOLARE SAGARDOTEGIA
Urtarriletik apirilera
TXOTX GARAIA
Ostiral, larunbat eta igande
eguerdietan IREKITA
Astelehenetan ITXITA
Larre-Gain Baserria Ereñotzu - Hernani
Tel.: 943 55 58 46 Mugik.: 616 287 867




SAIZAR
Betiko Sagardoa
Kalezar Auzoa, 39 • USURBIL • Tel. 943 362 228
www.sidrassaizar.com




ELUTXETA
SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA
Urte guztian irekita astelehena izan ezik.
Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ✆ 943 55 69 81




ERRETEGIA-NEKAZALTURISMOA
ARRATZAIN
TOLARE-SAGARDOTEGIA
Egunero irekia.
Arratzainzar Baserria
info@agroturismoarratzain.com
Telf: 943 36 66 63
20170 USURBIL




✆ 943 36 12 29
iruin
sagardotegia
Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta USURBIL
www.iruinsagardotegia.com | www.astazaransagardoak.com




AGINAGA
Sagardotegia
Urte osoan txotxetik
Estrata kalea, 7
Aginaga auzoa, USURBIL
Tel. eta Faxa: 943 36 67 10
Tel.: 943 37 06 68
a.sagardotegia@aginagasagardotegia.com